



**IRIZPEN ZK.: D22-005**

**IRIZPENA, UDALZAINGOAK EGUNERO HERRITARREN SEGURTASUNEO  
ZINEGOTZIARI ETA UDALERRIKO ALKATEARI BIDALTZEN DIZKIEN  
GORABEHERETAN FILIAZIO-DATUAK JARTZEA ZILEGIA DEN ALA EZ EBAZTEKOA**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** 2021eko abenduaren 13an Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Sindikatuaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horrek honako hau dio:

*«[...]ko Udaltzaingoko kideen artean zalantzak sortzen ari dira Poliziaren Burutzak agintzen dituen eguneroko prozedurei buruz; izan ere, Udaltzaingoko kide batzuek interpretatzen dutenez, baliteke prozedura horiek abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa urratzea. Bada, idazki honen bidez eskatzen da Bulego horrek argibidea eta ebazpena eman dezala jarraian azalduko dizuegun auziari buruz;*

*[...]ko Udaltzaingoa urteko lizentzia daukan EUROCCOP polizia-erabilerako programa informatikoa erabiltzen du polizia-arloko barneko kudeaketarako polizia-tresna gisa. Programa horrekin, udaltzaingo honek jakiten dituen gorabehera guztiak erregistratzen dira, edozein dela ere gorabehera horien berri izateko modua: telefono-deia, bidean izandako abisua, polizia-jarduna..., baita administrazio-zehapenak, istripua, ez-zilegitasun penalak eta abar ere. Komunikazio-gunean jarduten ari den agentea, bere lanaldiaren hasieran, programa horretara gako pertsonalizatu eta pribatu baten bidez sartzen da, eta berak bakarrik daki gako hori. Agente horren lanbide-zenbakia operatzaile gisa erregistratuta geratzen da saioan erregistratzen diren gorabehera guztiei dagokienez, eta gorabehera horiek banaka eta hurrenez hurren zenbakituta agertzen dira txandaz txanda eta urte osoan.*

*Agente operadoreak, egunero programan sartzeko, Datuak Babesteko Lege Organikoaren terminoak onartzen ditu "ONARTU" fitxan klik eginez. Hala, lege horrek dioena ohartarazi zaiola adierazten du, programan erregistratzen diren eta lehendik erregistratuta dauden datuen tratamenduari buruz isilpekototasun-betebeharra betetzea barne dela. Saioa hasitakoan, komunikazio-gunean jarduten duen agente operadoreak gorabehera bat sortzen du abisu baten berri duen bakoitzean, eta programan hainbat fitxa zabalgarritan erregistratuta geratzen dira gertakaria bera, zerikusia izan duten pertsonak –haien filiazio osoarekin, baita adingabeak direnean ere–, zerikusia izan dezaketen pertsonak –haiek ere filiazio osoarekin, baita adingabeak direnean ere–, parte hartu duten agenteak, ibilgailuak eta gorabeheraren emaitza. Gorabehera horietan, proposatutako administrazio-zehapenak ere erregistratzen dira, baita zehapen penalak ere (3/2018 Lege Organikoaren 27. 1 a) eta b) artikulua).*

*8 orduko lan-txanda bakoitza amaitzean, koordinazio-gunearen operadoreak PDF fitxategi bat sortzen du, zeinean ageri baitira txandan erregistratutako gorabehera guztiak. Gorabehera horiekin "Alkatearentzako berritasunak" izeneko PDF fitxategi bat sortzen da, eta gorabeherak dagokien karpetan gordetzen dira, honela ordenatuta:*



*txanda (Goiza/Arratsaldea/Gaua), eguna (01etik 31ra) eta urteko hilabetea (Urtarriletik abendura). Hileko egun bakoitzean hori 3 aldiz egiten da.*

*Prozedura horri esker, gainerako agenteek aurreko txandetan erregistratutako polizia-arloko gorabeheren berri izan ahal dute libre duten denboran, sortutako PDFak aztertuz. Hain zuzen ere, lan-txanda bakoitzaren hasieran, zerbitzu-buruak PDF horiek operatiboko kide guztiei irakurtzen dizkie, "Zerrenda-irakurketa" deritzon ekitaldian.*

*Sortzen den fitxategi-formatu horretan, modu laburragoan jasotzen da txanda bakoitzean izan den gorabehera bakoitzaren laburpena, baita parte hartu duten agenteak eta gorabeheraren emaitza, baina ez da agertzen komunikatzaileen, inplikaturakoen edo lekukoaren (orokorrean, partikularren) filiazio-daturik. Egunero sortzen diren "Alkatearentzako berrietasunen" hiru zerrendak (Goizekoa/Arratsaldekoa/Gauekoa) hurrengo eguneko goizean posta elektronikoko korporatiboaren bidez (\_\_\_\_@[...] .eus) bidaltzen zaizkie goragoko agintariei, udaltzainburu jaunari eta baita [...]ko alkate andreari eta herritarren segurtasuneko zinegotzi jaunari ere.*

*Polizia osatzen duten kide askok, eremuetan datu pertsonalik jasotzen ez duten polizia-arloko gorabehera horiek operatiboarekin zerikusirik ez duten pertsonari bidaltzeko agindua jasotzen dutelarik, inplikaturako pertsonen izen-abizenen inzialak soilik agerrarazten dituzte abisuaren eta emaitzaren eremuetan, euren pribatutasuna ez urratzeko, uste baitute halako datuak jakitea ez dela beharrezkoa alkatetzaren edo zinegotzigoaren eginkizunetarako, kasu jakin batzuetan ez bada, eta hori txosten arrazoitu bat dela medio. Zinegotziak eskatuta, Udaltzaingoa Burutzak udaltzainari agindu die abisuaren testuaren gorputzean eta emaitzan herritarren filiazio-datu guztiak jar ditzatela, hau da, izen-abizenak eta NAN zenbakia; beraz, PDF fitxategietan orain arte ez dira datu horiek agertzen eta, hala, pribatutasuna zaintzen da, baina agindua betez gero, zinegotzi jaunak nahiz alkate andreak datu horietara irispidea izango dute eta, hala, pribatutasun hori urratzen da.*

*Udaltzaingoko kide gehienen ustez, burutzak goizeko txanda bakoitzaren lehenengo zeregin gisa agintzen duen jarduera horrekin baliteke Datuak Babesteko Lege Organikoa eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 5.1.c) artikulua urratzea; gainera, haien ustez ere, polizia-arloko filiazio-datu horiek lehentasunez babestu beharreko datu pertsonalak dira, eta halakoak osorik jakitea mugatu behar da, eta irispidea izatekotan arrazoitu egin behar da.*

*Azaldutakoa kontuan hartuta, eskatzen dugu Bulegoak sindikatu honi argi dieziola ea zilegia eta komenigarria den egunero posta elektronikoko bidez [...]ko Udaleko Herritarren Segurtasuneko zinegotzi jaunari eta [...]ko udaleko alkate andreari bidaltzen zaizkien gorabeheretan –Udaltzaingoa jasotzen dituen gorabehera guztietan– herritarren filiazio-datuak –adingabeenak ere bai– osorik eta sistematikoki jartzea».*

**BIGARRENA:** 2021eko abenduaren 20an, [...]ko Udaleko Datuak Babesteko Ordezkaritari auzi horren gaineko txostena eskatu zitzaion. 2022ko urtarrilaren 26an [...]ko Udalaren idazki bat sartu zen. Idazki horrekin batera Udaltzaingoko Buruaren txostena zihoan, eta hona hemen txosten horrek dioena:

*«Irakurri da Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztu den idazkia, eguneroko jardunen zerrendak bidaltzearen, erabiltzearen eta hainbat pertsonari bidaltzearen gainekoa. Bada, idazki horri buruz honako hau argitzen da:*

*1.- Bi motatako dokumentu edo zerrendak daude, eguneroko polizia-jardunetatik sortutako gorabeherak prestatzeko eta berrikusteko erabili ohi direnak.*



*Lehenengoa. Abisuak jasotzeari buruzko fitxa.*

*"Eurocop" polizia-kudeaketako sisteman gorabehera bat irekitzen den bakoitzean sortzen den dokumentua da. Dokumentu horretan agertzen dira jardunean sartu diren datu guztiak, baldin eta sisteman eragiketak egiten dituen pertsonak Burutzaren jarraibideak betetzen baditu eta zerikusia izan duten pertsona guztien (komunikatzaileen, inplikaturakoen, eta abarren), ibilgailuen nahiz berorien titularren filiazioa jartzen badu, bai eta horiez gain abisuaren emaitza, jardun duten pertsonen inplikazioa eta abar... Ezinbestekoa da programaren datu guztiak dokumentatzea, fitxategia osorik edukitzeko eta polizia-kontsultak egiteko eta/edo hainbat organismo erantzuteko, esate baterako epaitegiei, fiskaltzari, beste polizia-kidego batzuei eta abar... Normalean, fitxa bakoitzak bi orrialde betetzen ditu, inprimatu behar izatekotan.*

*Bigarrena. Eguneroko gorabeherari buruzko fitxa.*

*Zerrenda hori polizia-fitxen txosten minimalista bat da, non honako datu hauek ageri baitira:*

*Deiaren laburpena azaltzeko testua*

*Deiaren kudeaketa*

*Gorabeheraren lekua eta jardun duten agenteen lanbide-zenbakiak.*

*Dokumentu horretan datu gutxiago jasotzen dira polizia-fitxan baino. Hain zuzen ere, ez da agertzen gorabeherarekin zerikusia izan duten pertsonen edo ibilgailuen filiaziorik, eta egunero PDF formatuan sortzen da 8 orduko lan-txanda bakoitzean – goizez, arratsaldez eta gauez–. PDF hori polizia-intranetean artxibatzen da, poliziak irispidean duen karpeta batean. Hori da informazio-eskarian "Alkatearentzako beritasunak" deitzen den dokumentua.*

*Dokumentu hori zerrenda-irakurketan edo eguneko hiru lantaldeen zerbitzuaren hasieran erabiltzen da; hala, guztiek jakiteko eta bideen nahiz herritarren segurtasunaren prebentzio-lana egiteko ezinbestekoa den informazioa ematen da, prebentzioaren arloan interesgarria baita jakitea nor diren ikertutako pertsonak, nor diren identifikatu, ikertu edo atxilotu beharreko susmagarriak, errekesitoriak dauzkaten pertsonak, ez-zilegitasun penalak egitearen susmagarri diren ibilgailuak eta abar.*

*Normalean, zerrenda horretan, poliziako kideei pertsona hori identifikatzeko modua emango dien filiazioa soilik jartzen da (izen-abizenak), baina ez gainerako datuak (NANA, AIZa, pasaporte eta abar).*

*Burutzaren agindua da lehenengoz "polizia-fitxan" inplikaturako pertsona eta ibilgailu guztien datu guztiak jartzea eta bigarrenez "eguneroko gorabeheren zerrendan" soilik identifikazio-datuak, inoiz ez NANA/AIZa/pasaporte (horrek ez dakar ezer berririk, poliziek ez baitituzte pertsona horiek datu horien bidez ezagutzen, eta gainera hori guztia FITXAn ageri da) ez-zilegitasun penaletan inplikaturakoei dagokienean, eta ez da ohikoa fitxa horretan komunikatzaileen, lekukoaren eta inplikaturakoen filiazioa jartzea, dokumentu horretan datu horiek ez dutelako ezer ere ekartzen polizia-arloko prebentzioaren onerako. Bigarren datu-mota hori jada abisuak jasotzeari buruzko fitxan ageri da eta datu horiek edozein errekerimendu jasoz gero ustia daitezke.*

*Atxilotutako eta ikertutako pertsonen inzialak –X.X.– jartzea, zenbait agenteren jardunbide den hori, oztopoa da polizia-operatiboaren lana betetzeko, ez baita inola ere argitzen poliziak zein pertsonarekin izan behar duen elkarreragina.*



*Aurreko eguneko gorabeheren zerrenda, PDFn sortutako hiru dokumentu dauzkan hori (goizekoa, arratsaldekoa eta gauekoa), hurrengo egunean bidaltzen da [Policialocal@...eu](mailto:Policialocal@...eu) helbidera, eta bertatik honako erabiltzaile hauei banatzen zaie:*

*Poliziaren komisariorde buruari eta hiru ofizialordeei*

*Udaltzaingoaren buru politikoek hala adierazita, beste erabiltzaile batzuk gehitu dira, Alkatetza eta Poliziaren eskuordetzea duen Zinegotzigoa.*

*Egunero, Ertzaintzak poliziako kide guztioi bidaltzen dizkigu bi polizien barrutian edo bion lan-esparruan egunero prestatutako gorabeherak, [policialocal@...eu](mailto:policialocal@...eu) helbidera, aurreko paragrafoan azaldu diren erabiltzaileak jarrita.*

*Zerrenda horretan agertzen dira gorabehera-mota, delitua, inplikaturako pertsonen filiazio osoa, NANA, AIZa eta abar, ibilgailuak, pertsonen telefono-zenbakiak eta atxilotutakoen argazkiak. Zerrenda hori lan-txanda bakoitzeko zerrenda-irakurketan aurkezten da, polizia honen operatiboek ere jakin dezaten norekin izan den elkarreagina, eta gainera, segurtasun-prebentzio gisa ere baliagarria da hori.*

*Honako hauek eransten dira:*

- 1.- Abisuak jasotzeari buruzko fitxaren adibide bat*
- 2.- Zerrenda-irakurketetan inzialekin aurkezten den gorabeheren zerrenda*
- 3.- Izen-abizenekin aurkezten den gorabeheren zerrenda*
- 4.- Burutzaren agindua, filiazioa osorik betetzeari buruzkoa (izen-abizenak... inoiz ez alferrikakoak diren datuak)*
- 5.- Ertzaintzak egunero bidaltzen dituen gorabeherak».*

**HIRUGARRENA:** Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».*

Beraz, goiko araudi hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Datu pertsonalak babesteari buruz gaur egun honako lege hauek daude indarrean: bata da 2018ko maiatzaren 25az geroztik estatu kideetan zuzenean aplikatu behar den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra); eta bestea da abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, 2018ko abenduaren 7az geroztik indarrean dagoena.



Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak 4.1 artikuluan honela definitzen du datu pertsonala: «*pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri (“interesdun”) bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago*».

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 4.2 artikulua xedatzen duenez, berriz, datuen tratamendua da «*datu pertsonalen ganean edo datu pertsonalen multzoen ganean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea*». Beraz, datu pertsonalen tratamendua egiten denez, datuak babesteari buruzko araudia bete beharko da.

Erregelamendu Orokorren 5. artikuluan datu pertsonalen tratamenduari buruzko printzipioak ezartzen dira. Printzipio horien arabera, datuen tratamendua legezkoa, fidela eta gardena izango da. Halaber, bildu ondoren, datuak helburu zehatz, esplizitu eta legitimoetan aplikatu behar dira, eta ezin izango dira helburu horiekin bateragarria ez den moduan erabili. Horrez gain, datu pertsonalen tratamendua datuen minimizazioaren printzipioa bete behar du; hain zuzen ere, datu horiek egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak izan beharko dute, lortu nahi den helburuarekin alderatuta eta, hori hala izateko, neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatuko dira.

## II

Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Sindikatuak planteatzen duen kontsulta da ea zilegia den egunero herritarren segurtasuneko zinegotziari eta udalerriko alkateari bidaltzen zaizkien gorabeheretan filiazio-datuak jartzea. Horri buruz, nabarmendu behar dugu Erregelamendu Orokorrak 6.1 artikuluan ezartzen duela zein kasutan dagoen legimitatuta datu pertsonalen tratamendua. Hona hemen kasu horiek:

- a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
- b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.
- c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.
- d) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko.
- e) Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
- f) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoak erantzuteko, non eta interes horien ganean ez dauden



datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarrizko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean.

Erregelamendu Orokorraren 6.3 artikulua ezartzen duenez, «1. zenbakiko c) eta e) letretan adierazitako tratamenduaren oinarria ezarri beharko du Batasuneko zuzenbideak edo tratamenduaren arduradunari aplikatzen zaion estatu kideetako zuzenbideak».

Horren haritik, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, 8. artikuluan (Datuen tratamendua, legezko betebeharra, interes publikoa edo botere publikoen egikaritzea direla-eta), honako hau ezartzen du:

*«1. Datu pertsonalen tratamendua arduradunari legez eskatzen zaion betebeharr batean oinarrituko bada –(EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.c) artikulua xedatutakoarekin bat–, nahitaez Europar Batasuneko zuzenbidearen arau batek edo lege mailako batek horrela aurreikusi beharko du; arau horrek tratamenduaren baldintza orokorrak eta tratatuko diren datu motak zehaztu ahalko ditu, bai eta lege-betebeharraren ondorioz egin beharko diren lagapenak ere. Halaber, arau horrek tratamendurako baldintza bereziak ezarri ahalko ditu; besteak beste, segurtasunerako neurri osagarriak edo (EB) 2016/679 Erregelamenduaren IV. kapituluaren ezarritako beste batzuk hartu beharra».*

Halaber, 3/2018 Lege Organikoaren 10. artikuluan, izaera penaleko datuen tratamenduari buruzkoan, zera ezartzen da: baldin eta kondena eta arau-hauste penalei eta horiekin loturiko prozedura eta kautelazko eta segurtasunezko neurri buruzko datu pertsonalen tratamenduak ez badu helburu arau-hauste penalak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea edo zehapen penalak betearaztea, bakarrik egin ahalko da Batasunaren zuzenbidearen arauen, lege organiko horren edo lege mailako beste arau batzuen babesean.

Beraz, kontsultaren xede den tratamendua zilegia den ala ez ebazteko, aztertu beharko da zein araubide juridikoren mendean dagoen tokiko korporazio bateko kideek EUROCOOP datu-base batean dagoen informazio pertsonalera irispidea izatea. Horri buruz, hasteko, esan behar dugu apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren (TAOL) 77. artikulua arabera toki-korporazioetako kide guztiek dutela korporazioko zerbitzuen esku egon eta beren eginkizunak garatzeko beharrezko aurrekariak, datuak edo argibideak alkate edo lehendakariarengandik edo gobernu-batzordearengandik lortzeko eskubidea.

Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ez dio zinegotziek udal informazio guztia eskuratu dezaketenik bestetik, eskubidea baliatzeko prozedura ezarri zuelako. Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren Erregelamendua (AJA) onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 14., 15. eta 16. artikuluek aurreko artikulua nola garatzen duten ikusiz gero, ondorio bera ateratzen dugu. Bestalde, 15. artikulua dio zinegotzietatik nahitaez eman beharko zaiela informazioa, zinegotzietatik ordezkariaren bat edo kudeaketa arloko erantzukizunen bat badute esleituta, eta informazioa esleitutako arlo horiei buruzkoa bada. Horrez gain, dio zinegotziak kide anitzeko organoren bateko kide badira, nahitaez eman behar zaiela organoetan aztertuko diren gai buruzko informazioa eta dokumentazioa, bai eta udaleko organo orok hartutako erabakiei edo emandako ebazpenei buruzkoa ere. Azkenik, herritar ororentzat eskuragarria den informazioa ere eman egin behar zaie.



Horri buruz, Auzitegi Gorenak (besteak beste, ekainaren 27ko 1541/2016 Epaian) zera onartu du: korporazioko kideek karguan aritzeko behar duten informazioa eskuratzeko eskubidea, 77. artikulua oinarrizko eskubide gisa onartzen duena, funtsezkoa da korporazio horien funtzionamendu demokratikorako eta Konstituzioaren 23. artikulutik eratorritako gai publikoetan parte hartzeko oinarrizko eskubiderako. Informazio egokia izatea funtsezko baldintza bat da osoko bilkuretako eta gainontzeko kide anitzetako organoetako eztabaidetan eta bozketetan parte hartzeko, kontrol eta fiskalizazio eginkizunak behar bezala burutzeko edo dena delako zinegotziak esleituta dituen kudeaketa arloko ardurak baliatzeko, azken finean, erantzukizun zibilaren eta zigorerantzukizunaren menpean dago beren kargua betetzerakoan egindako egintza eta ezegiteak direla-eta (TAOLen 78. artikulua). Horregatik, jurisprudentzian beti modu zorrotzean aztertu dira eskubide hori mugatzen edo murrizten den kasuak (epai askoren artean, 1995eko otsailaren 9koa, 1994ko abenduaren 27koa eta 1993ko azaroaren 24koa).

Araubide juridiko horren arabera, zinegotzien informazio-eskubideak harreman estua eta zuzena dauka zinegotzi-eginkizuna egikaritzearekin, eta kasu honetan, zehazki, herritarren segurtasunaren arloko eskumenak betetzearekin. Horren haritik, TAOLen 21. artikuluan alkatearen eskumenak arautzen dira; bada, artikulua horren i) apartatuan ezartzen denez, udaltzaingoaren buruzagitza betetzea dagokio. Ildo beretik, apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 17. artikuluan udalerrien eskumen propioak arautzen dira, eta horien artean nabarmentzen da udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.

Bestalde, ekainaren 28ko 15/2012 Legean, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzearen arloko agintari publikoak arautzen dira (4. artikulua), eta zera ezartzen da: segurtasun publikoaren sisteman parte hartzen dute alkateak eta udal-organoen beste titular batzuek, bakoitzak bere eskumenen esparruan.

Beraz, azaldutako esparru juridikoa kontuan hartuta, ondorioztatu ahal da tokiko korporazioetan herritarren segurtasuneko eskumenak dauzkaten kideek euren eginkizunak egikaritzearekin zerikusia duten informazioa irispidea izan ahalko dutela, Erregelamendu Orokorren 6.1 c) artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, baita tratamendua beharrezkoa denean ere eginkizun bat betetzeko interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean, Erregelamendu Orokorren 6.1 e) artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da datuak babesteko oinarrizko eskubidea behar bezala bermatzeko funtsezko eginkizuna daukala minimizazioaren printzipioak, Erregelamendu Orokorren 5.1.c) artikuluan jasota dagoen horrek, zeinaren arabera datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurri mugatuak izango baitira, haien tratamenduaren helburuen arabera. Printzipio horren xedea da arrazionaltasun eta proportzionaltasun irizpideak txertatzea informazioa erabiltzean, datu-tratamenduaren helburua zein den ardatz hartuta.

Kasu honetan kontsultatu da ea zilegia den udaltzaingoak egunero herritarren segurtasuneko zinegotziari eta udalerriko alkateari bidaltzen dizkien gorabeheretan filiazio-datuak jartzea. Beraz, ezarrita dagoen lege-esparruaren arabera, irispidea izateko baimena eman behar da, eta kasu bakoitzean zer helburu lortu nahi den, hori lortzeko behar diren datuen eta ez gehiagoren tratamendua egin beharko da. Hala, pertsonen pribatutasunean



bidezkoa ez den moduan esku sartzea eragotziko da, minimizazioaren printzipioarekin bat eginez.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 7a